

baketik

Arantzazuko Bake zentroaren ideia etikoen aldizkaria

2
2008ko ekaina
2€




Javier Garridok eskainitako hitzaldia
2008ko otsailaren 2a

Etika, elkargune

Zeri deritzogu etika?
Etika jakintza existentzialtzat
Elkargunearen alderdi etikoa



Instituzio laguntzaileak



Baketik 2

Argitaratzen du: Baketik (Gandiaga Topagunea - Arantzazu - 20567 Oñati)

Inprimaketa: Antza (Industrialdea 2. pab. - 20160 Lasarte)

Lege Gordailua:

2008ko ekaina

Etika, elkargune

Bakearen alde egiteko gatazkak lantzea da etikaren funtsezko filosofia, eta horretarako ezinbestekoa da etika elkargune bihurtzea. Elkargunerako baldintza da etika; topaketak, berriz, humanizazio-prozesuetan laguntzen du, non etika hazi egiten den, pixkanaka. Etikaren abiapuntua ez dira aurrez finkatutako kodeak, baizik eta bizitzeko jarrera oso bat, zeina gaberik ez dagoen ez elkargunerik, ez bizikidetzarik, ez baketze-prozesurik. Etikaren elkargune funts horri ekingo diogu, bada, hurrengo atal hauetan.

Javier Garridok 2008ko otsailaren 2an Arantzazuko Bake zentroan emandako hitzaldiaren transkripzioa duzue idazki hau. Hizlariak 'orraztu' egin du testua, eta eutsi egin dio haren ahozkotasanari, zenbaitean doitasunaren kaltetan izan litekeela oharturik.

1. Zeri deritzogu etika?

Atal honen xedea ez da etika zer den zehaztea, baizik eta elkargunea errazteko oinarritzko kontzeptu batzuk azaltzea. Gatazketatik eta ideologietatik landa sortzen da elkargunea, baita haietan eurretan ere. Mintza gaitezen, bada, etikaren elkargune balioaz.

Lehenik eta behin, erantzukizuna dakar esperientzia etikoak, «halakoz arduratzea»; adibidez, familiaz, gizarteaz, norberaren buruaz, gizaki izateaz, humanizazioa sustatzen duten kausa noblez... Ez da beti izan bistakoa kontu hori. Sozializatiotik datoz lehenbiziko kode etikoak. Giza talde orok behar du, izan ere, oinarritzko bizikidetzaren antolatu, eta arauak ezartzen ditu gizarteak behar bezala funtzionatzeko. Zenbait filosofoen ustez, horixe besterik ez da etika, hots, adostasun-prozesu bat.

Bigarrenik, gizateriaren lorpen handi bat dugu, erlijio askoren Urrezko Araua: «Trata itzazue besteak haiek zuek tratatzea nahi duzuen bezala». Prozesu baten emaitza urrezko arau hori, prozesu etikoak, non bestea balio baten

jabe egiten den, ez soilik bizikidetzat egoki bateko subjektu. Beraz, printzipio edo eginkizun abstraktuei buruz jardun beharrean, egokiagoa dirudi harremanei buruz aritzeak.

Giza duintasunarena dugu etikak, elkargune den aldetik, dakarkigun **hirugarren ezaugarria**. Lorpen berria dugu giza duintasunarena. Gizakiak balio absolutua, baldintzarik gabekoa duela, hori dugu lorpena. Humanizazio-prozesu oso luzea behar izan da horretarako, eta gizarte- eta kulturamugimendu askoren lankidetzat. Mundu-ikuskerak, ideologia eta erlijio ororen gainetik bereganatu du gizateriak kontzeptu horren balioa. Gizarte moderno batean, jada emana datorkigun zera dugu kontzeptua, beti ez bada aintzat hartzen ere. Mende luzeetako kultura eta tradizio etikoari esker iritsi gara honaino.

Kontzeptu kultural gisara, aldiz, berantiarra dugu. Kant izan zen lehena argiro adierazten. Beraz, giza pentsaerak eta kulturak eraikia dute jada gizakiari buruzko pentsaera unibertsal bat. Gizakia ez da jada gizarte jakin baten arabera neurtzen, ezta halako sistema erlijiosoren arabera ere; berezko balioa du jada gizakiak, eta, horregatik, helburutzat hartu behar da, inoiz ez bitartekotzat. Horra hor etika hartzen ari den baldintzarik gabeko balioaren adierazle bat, gainerako erreferentziatzko mundu-ikuskerak edo sistematik bereiz lezakeena. Horregatik, diogu, gizakia dela elkargunearen ardatz nagusia.

Elkargunearen etika horren **beste ezaugarri bat** (oso orokorra, baina garrantzitsua, erreferentzia baita), hau dugu: «Ongia egin ezazu, eta gaizkiari bizkarra eman». Zertan datza printzipio hori? Eztabaida-iturri da, norberaren tradizioa zein den. Alabaina, printzipio horrek adierazten du gizateria finkatzen ari dela, giza kontzientziaren bitartez, zer balio edo kontrabaliu dituen lagungarri humanizazioaren edo suntsipenaren bidean. Esperientzia etikoaren bidean, urrats handia da kontzientzia sendotzea eta ongiaren eta gaizkiaren arteko bereizketa egiteko gaitasuna izatea, ardatz horietara jotzeko gizakiok aurrera egitea eta ados jartzea, erlatiboki eta baldintzak jarriz bada ere.

Israelgo herriak Sinaiko Aliantzan aldarrikatu zituen Hamar Aginduek, adibidez, erreferentzia esplizituak dituzte aurreko mendeetako zenbait kode etikotan; esate baterako, Hammurabirenean. Gizateriak ez ditu hartzen kode horiek behin betikoz ezarritako agindutzat, kontzientzia-eta kultura-prozesutzat baizik.

Erlatibismo-itxura eman lezake horrek guztiak, hau da, testuinguru jakin batean ezin dela jakin non dagoen ongia eta non gaizkia. Baina ez du zertan izan, nahitaez, erlatibismo-kontua, bereiztearena baizik. Kontua da bereiztea zertan egon gaitzkeen ados eta zertan ez. Horri esker, gizakion eta kultura guztien kontzientzia etikoan dugun konfiantza oinarritzko hori sendotu egiten da.

Baldintzarik eza da etikaren **bosgarren ezaugarria**. Kontzientziak eginkizuntzat duen orori deitzen diogu baldintzarik eza. Eginkizuna ez da gustuen edo dakarzigun onuren

araberakoa. Formalki, betebeharrak huts gisara, hartzen dute batzuek baldintzarik eza. Horrela bada, gizakiaren aurka egiten du beti. Baina beste zentzu bat ere izan dezake baldintzarik ezak, non erantzukizunak iritsia duen jada gustu eta interesen mendekoa ez den halako barne-askatasun maila bat. Orduan, elkarrekin uztartzen dira gizakiaren baldintzarik gabeko balioaren ikuskera eta etikak berekin dakarren baldintza-ezintasunaren esperientzia.

Unibertsalizazio-prozesua aipatu ohi da etikaren **azken ezaugarritzat**. Hasieran, halako edo horrelako gizarteei loturiko kodeak izan ohi ditu etikak. Gizateriaren lorpena dugu, ordea, etikak printzipio unibertsalak bereganatzea. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartzea asko kostatzen zaien arren gure gizarteei, Aldarrikapen hori dugu etikaren unibertsalizazioaren oinarritzko erreferentziatzeko bat.

2. Etika jakintza existentzialtzat

Etika ez da jakintza bat, eta ez du erreferentzia nagusi portaera, gizarteak onetsia edo onetsi gabekoa. Norberaren kontzientziatik sortzen da etika. Beraz, gizakiaren humanizazio-prozesuaren araberrakoa izaten da kontzientzia etikoa. Horregatik, komeni da esperientzia etikoan mailak bereiztea. Hiru maila aipatu ohi dira, baina, jakina, askoz gehiago daude.

Etika arautzailea

Esperientzia etikoko maila honek eskatzen du zer dagoen ongi eta zer gaizki bereizteko kodeak ikastea, barneratzea eta horien arabera jardutea. Balioen etika honen eginkizuna da ordena bat finkatzea bizikidetzarako eta gizakientzako, zeinek portaera-irizpide argiak behar baitituzte.

Arazionaltasun abstraktua

Goi-aginduen bidez jarduten du esperientzia-maila honek; arrazionaltasunaren bidez, aukerak zabaltzen saiatzen da, egoerak nola aldatu eta bestelako etorkizun batera nola jo erabakitzeke, gizakiaren eta gizartearen duintasunera hobeto egokitzen den etorkizunera. Arazoa sortzen da arrazionaltasun abstraktuzko etika hori agindu formalez elikatzen bada. Horrelakoetan, dena jartzen da printzipioen menpe, eta ezin izaten dira bereizi printzipio horiek eta egoera bakoitzaren nolakotasuna.

Greziarrek zioten justiziak zuhurtzia behar zuela izan lagun beti. Ideal edo printzipio batzuk ezartzen saiatuz gero haien bideragarritasuna eta egoera zehatzak kontuan izan gabe, agindu zurrunkoak bihurtzen da etika. Agindu zurrunkoekin diharduen etika, baina, etikaren aurka bihurtzen da, hots, gizakiaren ukazioa.

Jakintza existentziala

'Jakintza existentziala' deituko diogu esperientzia etikoaren hirugarren mailari. Batez ere norberaren esperientziaren araberrakoa izaten da maila hori; hortaz, etika arautzaile edo printzipio-etikotik jakintza existentzialeko etikarako



bidea egiten da. Hona hemen esperientzia etikoko maila honen ezaugarri nagusiak.

·**Lehenik eta behin**, mintza gaitzen benetakotasun existentzialaz. Komeni da bereiztea benetakotasun morala eta existentziala. Benetakotasun morala da norberak pentsatzen duenaren arabera jardutea, norberaren sinesmen, printzipio eta iritzien arabera aritzea. Benetakotasun existentziala, berriz, sakonagoa eta erradikalagoa da, eta gainerako kode guztien aurretik jartzen da. «Ni neu izateko eskubidea dut», edo «nire bizitzaren jabe izan behar dut» esatea dakar benetakotasun honek, baita –bigarren fase batean– gure buruari galdetzea «zer egin behar dut nire bizitzarekin?», «zer irizpide praktiko erabili behar ditut?». Lehen fasean, benetakotasun existentzialekoan, gizakiak bere esku hartu behar du bere bizitza, gizaki izatearen erantzukizuna bereganatu eta, hortik abiatuta, bere buruarekiko leial izaten saiatu. Benetakotasun existentziala da ez ihes egitea errealitatetik, gatazkei ekiteko gai izatea, nahiago izatea egia segurtasuna baino... Jokabide hori portaera-erabakien aurrekoa da, eta autonomia-prozesu bat eskatzen du, etikaren ikuspegi jakin bat, kodifikatu gabea. Barne-bizipen horietatik begiratzen du gizakiak mundua, eta bere izatearen duintasunaz jabetzen.

·Jakintza existentzialaren **bigarren** ezaugarria da arrazionaltasuna eta errukia elkarrekin uztartzen asmatzen jakitea. Ez gara ari erruki paternalistaz, baizik eta gizakia bere bakartasunean onartzeko bihotzaren gaitasunaz, batez ere gizaki arteko harremanetan. Arrazionaltasunaren eta errukiaren lotura horrek eskatzen du balioak baldintzarik gabe onartzea eta bihotzaren barrenetik sentitzea. Bihotzak baditu mundua eta giza harremanak

argitzeko baliabideak, eta inongo arrazionaltasun formalek atzematen ez dituen zentzu- eta itxaropen-aukerak zabalarazten ditu. Jakintza existentziala, portaraz ez ezik gizakiak hurkoarekiko duen jarreraz ere arduratzen da.

·**Hirugarren** ezaugarria sotilagoa da, baina oso garrantzitsua: izatearen oinarrizko sentimenduak. Gerta liteke norbait koherentea izatea, tinko eustea sinesmen eta agindu etikoei baina, aldi berean, konfiantzarik ez izatea ez bizitzan ez besteengan. Bizitza eta besteengana konfiantzarik gabe, ordea, zer etika eraiki behar dugu? Horixe bera gertatzen da esker onekoa izatearen ikaskuntzarekin, hau da, mundua dohaintzat (ez menderatu beharreko jabetzat) ikusteko gaitasunarekin. Oinarrizko sentimendu horiek ditugu etika humanizatzen duten euskarriak. Izan ere, etika ez badugu euskarri horiekin humanizatzen, gizakiaren aurkari bihurtzen da.

·**Laugarren** ezaugarriak, berriz, zentzuaren gaineko azken galderetara garamatza: Zergatik du duintasuna gizakiak? Zertan oinarrizten da? Zer zentzu du sufrimenduak, bizitzak, heriotzak? Etikak zergatik eskatzen ditu baldintzarik gabeko aginduak, baina horien gauzatzea ez da inoiz ideala, daitekeena baizik? Gerta liteke gizaki batek, jakintza existentzial horretatik abiatuta, ondorioztatzea etika dela bizitzaren zentzua. Bestalde, sinestunen ikuspegitik, Jainkoaren hitza izan daiteke etikaren zentzua. Bi jarrera horiek guztiz dira zilegizkoak, elkargune berak baitituzte biek: gizakia eta humanizazioa.

Une honetara iritsi garelarik, kontua da nola iritsi jakintza existentzialeko etika-maila horretara. Jakina, liburuek ez dute hori irakasten; prozesu pertsonalen bitartezko ikas-

kuntza eskatzen du. Hona hemen esperientzia etikoko maila horretara iristeko baldintza batzuk.

- Heldutasun psikologikoa ezinbesteko baldintza da. Prozesu horretan, autonomia-gaitasuna izan behar du gizakiak, baina ez bestearengandik defendatzeko, baizik eta bere buruari leial izateko, hori baita bestearen bizikide izateko bidea. Heldutasun psikologikorik gabe, nekez iristen da gizakia etika-prozesu goietara.

- Esperientzia etikoko maila horrek eskatzen du, bestalde, autonomia pertsonala subjektu artekotasunarekin uztartzen jakitea, hots, besteekiko harremanarekin.

- Bestalde, alderdi zehatzak eta unibertsalak elkarrekin uztartzen ere ikasi behar da. Horregatik da hain garrantzitsua, etika-kontuetan, dena kode edo idealen mende ez uztea eta etika humanizazio-prozesutzat hartzea.

3. Elkargunea gai etiko gisa

Giza esperientzia batetik mintzo gara elkarguneaz. Esperientzia horrek diosku gai garela, desadostasunetik landa, elkarrekin jarduteko, eta, elkargunea eragozten duen egoerarik agertuz gero, eremu erkiderik aurkitzeko. Orogen gainetik, edo, hobeki esanda, ororen bitartez, elkargunea sortu egiten da. Zer ezaugarri etiko behar dira, baina, elkargunea horretarako?

- Lehenik eta behin, errespetua.** «Zuk zure bizimodua; nik, neurea» irizpidetik harago garamatza errespetuak. Sarritan, kontzeptu indibidualizatzen hartzen dugu tolerantzia, gure bizitzan inor ez sartzeko hesitza. Batzuetan, irizpide sozial zentzuzkoa izaten da hori, baina ez beti. Bereizi egin behar dira errespetua/tolerantzia printzipio etiko gisara (bestearen duintasuna onartzea), batetik, eta bizikidetzaren irizpide modura, bestetik. Elkargunerik izango bada, zor zaion duintasunarekin tratatu behar da bestea, edozein dituela ere pentsaera eta portaera. Bestearrekin ados egon edo ez, bortxaezina da bestearen duintasuna.

- Konfiantza da elkargunerako bidea errazten duen bigarren ezaugarria.** Bestearrekin mesfidati izateko izugarriko ahalmena dugu gizakiok, desberdina dela iruditzen baitzaigu, mehatxutzat hartzen dugu. Mesfidantzak higatzen ditu harreman guztiak, bai familiar, bai taldeetan, bai erabaki adostuak hartu behar direnean.

- Hirugarrenik, arrazionaltasunetik abiatzen den plataforma erkide baten beharra dugu.** Ikuspegi zientifikotik, oso argi dago hori. Unibertsalak dira parametro zientifikoak, arrazionaltasun objektibagarriaren gainean baitihardu zientziak. Baina giza bizikidetzaren eta etika tartean direla, oso bestela dihardu arrazionaltasunak. Komeni da bereiztea arrazionaltasun zientifikoa eta giza unibertsaltasuna helburu duen plataforma erkide horrek behar duen arrazionaltasuna, non elkarrekin ari gaitezkeen desberdintasun ideologiko, kulturalak eta erlijiosoak gorabehera. Bestela, kode itxietan murgil gintezke, zeinak egungo gizarteko gatazka askoren sorburu diren, ez baitugu bereizten non topa gaitezkeen elkarrekin eta non ez.

Arrazionaltasun-plataforma erkide hori aintzat hartzen ez duen heziketak, adibidez, boterea eskuratzeko borroka ideologikoa sor lezake, edo botere ideologikoa eskuratzeko borroka.

- Laugarren ezaugarria, berriz, gutxieneko edo gehieneko adostasun batera iristeko asmoa da.** Lankidetzaren ahalmena eskatzen du, aldi berean, horrek. Bestalde, normalean erlijioarekin lotzen dugun nabardura bat aipatu beharra dago, gizakioi halako seigarren zentzumen bat ematen baitugu: bestea lagun hurkotzat hartzea. Horrek ez du esan nahi bestea maitatu behar dugunik, baizik eta hurkotzat hartu eta tratatu behar dugula, hau da, ez dugula jo behar «bestetzat», gure ondoan, gurekin dagoen norbaitzat baizik. Horrek eskatzen duen hurbiltasunak ez dauka zertan afektiboa izan, baina halako enpatia-maila bat eskatzen du. Adostasun-harreman bat ezin da sinpatian oinarritu, baina bai enpatian, hots, bestearen lekuan jartzeko gaitasunarekin. Gaitasun hori gabe ezin da bestearrekin elkargunerik gauzatu. Gizakion ohiko joera da besteengandik babesteko sistemak eraikitzea, baina hautsi egin behar dira, elkargune-aukerak eraikitzeko. Horretarako, ordea, jarrera jakin batzuk behar dira.

Adibidez, ezin du egiazko demokraziarik egon gizartea, estatua edo alderdiak antolatzen irizpide formal hutsekin. Sarritan, etika demokratikorik eza ezkututzen da demokrazia formalaren atzean. Zentzu etikorik gabe ezin da demokraziarik eraiki. Askatasuna eta desberdintasunak errespetatzea eskatzen du horrek, adostasun-arauekin bizitzeko gaitasuna, aniztasuna onartzeko premia.

‘Hiritar-heziketa’ deritzon ikasgaia dugu beste adibide bat. Etika zibil bat behar dugu, ideologiaren mende ez dagoena, botere ideologikoa eskuratzeko borrokarik ez ekiteko. Zilegi da horri buruzko iritzi desberdinak izatea, baina etika zibilarren gaia seriozki hartzen ez duen gizarteak nekez onartuko du bere aniztasuna.

Beste era batera esanda, humanizazioa dakarten elkarguneak behar ditugu, baina ezin elkargunerik egon ez bada etikaren bat proposatzen. Etikak, bestalde, humanizazio-prozesuak jorratzeko elkarguneak bideratzen ditu.

Komeni da, hemen, galdera hau egitea: ez gara oso tolesgabe edo utopiko izaten ari? Dena borondate onaren esku uzten badugu, bai. Borondate ona ez da jenero ugariegia ere izaten, baina, egonik ere, ez da aski izaten jarrera etikoak edukitzea. Ikaskuntzak, trebeziak behar ditugu, elkargune humanizatzaileak sortzeko araubideak. Jakina, inoiz amaitzen ez den lana dugu hori, gatazka eremu horretakoak izaten baitira. Bi eratara ikus daitezke gatazka: kendu beharreko zertzat, edo humanizazio-bidetzat. Gatazka aztertzea eta ikuspegi etikorekin egitea ezinbesteko baldintza du giza bizikidetzaren geroak.

3.1. Elkargunerako zailtasunak, etikaren ikuspegitik

Zailtasun ugari ditu bidean elkargunearen etikak, etikari buruzko ikuspegi-aniztasunak eraginak. Hona hemen zailtasun horietako batzuk:

- Lehenbiziko zailtasuna da sistema itxi gisara aurkeztu ohi dela etika, alegia, halako pentsamendu etikorekin



ados zaude edo ez zaude; dena ala ezer ez. Balio absolutuekin justifikatzen den pentsamendu etikoa aurkezten da; beraz, hori onartzen duzu, edo etikatik kanpo zaude. Zailtasun hori ez da erlijioen eremuan bakarrik ikusten; sinesmen agnostiko zenbait ere kode itxikoak dira. Etika elkargune izan dadin, kode itxi izateari utzi eta humanizazio-prozesu eta esperientzia bihurtu behar du.

·Beste zailtasun larri bat izaten da kausak pertsonen gainetik jartzea, proiektu politiko, erlijioso edo ideologiko bat sakratutzat jotzea. Zailtasun handia da hori elkargune ororako.

·Ideologia erlijiosoen gizartearen eta beste erlijio batzuen aniztasuna ez onartzea ere zailtasun handia da elkargunearen etikarako. Alde horretatik, funtsezko gai bat aztertu behar da: «Eskubide berberak al dituzte okerrak eta egia?». Ikuspegi erlijiosotik, erantzuna ezezkoa izan ohi da, okerrak ez dituela izan behar egiaaren eskubide berberak. Eta egia Elizak finkatua duenez jada, handik kanpo daudenek ezin izan eskubide berberak. Baina ez egia ez okerrak ez dute eskubiderik; gizakia bakarrik da eskubideen jabe. Horrek erabat aldatzen du gaiaren ikuspegia, eta elkargune-etikari ateak irekitzen dizkio.

·Azkenik, etikarik ez badago, indibidualismo basatiak haren lekua hartzen duenean edo hutsaren pareko zer bat besterik ez denean etika «nahi dudana egin dezaket, inori kalterik egin ezean» gisako esaldiekin; printzipio horiekin ezin da humanizaziorik eraiki.

3.2. Elkargunearen etikaren emaitzak

Elkarguneari bideak irekitzen dizkion etika eraikitzeak, pixkanaka, ondorio esperantzagarriak ekar ditzake. Hona hemen aipagarrienak:

·**Elkargune-bidea eraikitzearekin batera, humanizazio-prozesua sortzen da.** Eta elkargune-bidea ez bada intere-

seno soilik, baizik eta irizpide etiko hornitua, sustrai sendoak ditu humanizazioak. Interesak, etorri eta joan egiten dira; irizpide etikoak, berriz, arazoak izaten ditu, baina iraun egiten du. Praktikan, kontuan hartu behar dira interes horiek. Horri ikaskuntzak eta trebeziak, justizia eta zuhurtzia uztartzea... deitzen diogu.

·**Bake- eta bizikidetzaren eremu erkideak sortzea.** Eremu erkide horiek gizakia sustatzen duten balioak badira, gizartearen baketzea baino askoz gehiago lortuko dugu: benetako heziketa soziala.

·**Etika zibil adostua eraikitzea.** Horretarako, ongi berezi behar da zertan egon gaitzkeen ados eta zertan ez. Eta, noski, ongi berezi behar dira eskubidea eta irizpide etikoak. Gatazka-iturri izan daitezkeen gaitetan, berezi egin behar dira gizarte plural bateko adostasun juridikoa eta gai etikoak. Bizikidetzaren arau batzuk finkatu behar dira, alderdi legala eta etikoa nahastu gabe; hau da, kontuan izan behar da zerbait ilegal ez izateak ez duela esan nahi etikoa denik nahitaez.

·**Erligioen arteko elkarriketarako plataforma sortzea.** Erligioen arriskua da egia absolututzat hartzen dutela esperientzia erlijiosoa, eta inongo hutsunerik gabeko sistematzat eraikitzen dutela batzuetan egia hori. Erligioen arteko elkarriketari oztopo egiten dio horrek. Plataforma bat eraiki beharra dago erlijio arteko elkarriketa bultzatzeko, itun humanista bat, zeinaren lehen erreferentzia Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala behar duen izan. Bestela, arriskua dago erlijioek fundamentalismoaren bidea hartzeko. Oinarrizko printzipio hau behar du plataforma horrek: «Fedea gizakiontzat da, ez gizakiok fedearantzat».

·Gaur egun, unibertsala da gizateriaz dugun kontzientzia; hori dela eta, **mundu osorako etika bat eraiki beharra** daukagu, pixkanaka. NBEk, NBEko epaitegiek eta erlijioen/kulturen arteko elkarriketek nahitaez hartu behar



dute hori aintzat. Jakina, pauso txikiak emanez hasi beharko da, baina emaitza nagusietakoa hori izango genuke, etika unibertsala alegia.

·**Ekologiaren gaineko etika bat sortzea.** Bizikidetzat-printzipioak arriskuan dauden lekuetan garatu behar da elkar-gune-etika hori.

4. Hausnartu beharrekoak

Nolanahi dela ere, hausnartu beharreko zenbait gai geratzen zaigu oraindik.

·Hona hemen lehenbizikoa: zer behar du gizaki batek horrelako etika baten esperientzia izateko? Motibazioen alorrekoak izaten dira mugitzeko gizakiok ditugun zailtasun nagusiak. Zerk motibatzen gaitu? Modak? Norberaren kontzientziak? Jakintza existentzialak? Fedeak? Motibaziorik gabe ez dago jarduerarik, eta, azkenean, alor horretakoak izaten dira arazo nagusiak.

·Beste gai oso garrantzitsu bat honako hau dugu: nola uztartu nortasun pertsonala, soziala, kulturala, erlijioso... giza izaera orokorrarekin? Lorpen handia da alderdi komunetan elkarrekin jarduteak norberaren nortasuna ez duela desegiten. XVIII. mendetik, Ilustrazioak –kontzienteki edo inkontzienteki– irizpidetzat erabili du alder-

di partikularrak eta norberaren nortasuna alde batera utzi beharra dagoela, unibertsalismora eta humanizaziora iristeko oztopo direlakoan. Alabaina, alderdi komunetan elkarrekin jardutea eta, aldi berean, norberaren nortasunari utsiz gero eta humanizazio-prozesu handiagoetara jotzea badago.

·Azken finean, zer du oinarri etikak? Horra hausnartu beharreko beste gai bat. Pentsalari batzuen iritziz, erlijio handiak etika unibertsalerako aurreko etapak baino ez dira, eta gainditu egin behar dira, batzen gaituen horretan elkartzeko. Erlijioak balioetsi egiten dira, gizateriaren prozesu etikoei egin dieten ekarpenengatik, baina, zenbaiten ustez, etikak ez du behar euskarritzat inongo azken zentzu erlijiosorik. Nabardura batzuk erantsi dizkiogu iritzi horri. Lehenik eta behin, etika humanista batek ez du esplizitazio erlijiosorik behar; arrazionaltasunak eta gizakien arteko elkarguneak ez dute euskarri erlijiosorik behar etika jakintza existentziala bada. Bigarrenik, oinarri erlijiosoaren arabera etika duenak etikaren ikuspegi berezia du (ez hobe, ez okerragoa; motibazioen eremua desberdina da eta eremu hau ez da bigarren mailakoa). Ez dago zertan bilatu oinarri metafisiko edo erlijiosorik etikari, zentzuaren oinarria ez baitator inongo pentsaera erlijioso edo filosofikotik.

baketik

Revista de ideas éticas del Centro por la paz de Arantzazu

2 Junio de 2008
2€




Charla ofrecida por Javier Garrido
2 de febrero de 2008

La ética como punto de encuentro

¿Qué se entiende por ética?
La ética como sabiduría existencial
El encuentro como cuestión ética



Instituciones colaboradoras



Baketik 2

Edita: Baketik (Gandiaga Topagunea - Arantzazu - 20567 Oñati)

Impresión: Antza (Industrialdea 2. pab. - 20160 Lasarte)

Depósito Legal:

junio de 2008



La ética como punto de encuentro

La filosofía de fondo de la ética como clave de elaboración de conflictos a favor de la paz depende de que la ética pueda constituirse en punto de encuentro. La ética es requisito para el encuentro y a la vez el encuentro es el que posibilita procesos de humanización donde crece progresivamente la ética. El punto de partida de la ética no son códigos preestablecidos sino todo un talante vital sin el cual no puede haber encuentro, convivencia ni procesos de pacificación. Vamos a tratar de acercarnos a esta clave de la ética como punto de encuentro a través de los siguientes apartados.

Este texto recoge la transcripción de una charla ofrecida por Javier Garrido en Baketik, el Centro por la paz de Arantzazu, el 2 de febrero de 2008. El ponente ha revisado el texto y ha preferido mantener su carácter verbal, aceptando las imprecisiones que eso supone.

1. ¿Qué se entiende por ética?

El objetivo de este apartado no es definir qué es la ética sino ofrecer unos conceptos básicos que posibiliten el encuentro. Este encuentro se da más allá y a través de los propios conflictos y de las distintas ideologías. Hablaremos de los rasgos de la ética como punto de encuentro.

En primer lugar, la experiencia ética implica responsabilidad. La responsabilidad entendida como «hacerse cargo de». Por ejemplo, hacerse cargo de la familia, de la sociedad, de sí mismo, de ser persona, de causas nobles que posibilitan la humanización, etc. Esto no siempre ha sido evidente. Los primeros códigos éticos son códigos que nacen de la socialización. Todo grupo humano necesita organizar una convivencia básica y establece normas de conducta para que funcione correctamente la sociedad. Hay filósofos que consideran que la ética no es más que eso, un proceso de consensos.

En segundo lugar, se sitúa una gran conquista de la humanidad y que en muchas religiones se denomina la

Regla de Oro: «trata a los demás como queréis que ellos os traten». Esta regla de oro supone un proceso. Un proceso de ética donde el otro adquiere un carácter de valor, no sólo como sujeto de una convivencia correcta. Esto implica que, en vez de hablar de principios o imperativos abstractos, se habla de relaciones.

El tercer rasgo de la ética como punto de encuentro es el concepto de dignidad humana. La dignidad de la persona humana es una conquista nueva. Implica que la persona tiene un valor incondicional y absoluto. Este reconocimiento ha supuesto un proceso muy largo de humanización donde se han puesto en juego movimientos sociales y culturales. La humanidad ha adquirido la capacidad de apreciar este concepto más allá de las distintas cosmovisiones, ideologías o creencias religiosas. En una sociedad moderna esto es ya un fruto adquirido lo que no quiere decir que siempre se realice. Nuestra cultura y tradición ética de siglos han permitido llegar a este punto.

Sin embargo, como fenómeno cultural es tardío. El primero que lo formula con nitidez es Kant, lo que supone que el pensamiento humano y la cultura han llegado a construir un pensamiento universal sobre el hombre. El hombre no es considerado en función de una determinada sociedad ni en función de un determinado sistema religioso; la persona humana es considerada en sí misma y por eso ha de ser tratada como fin y nunca como medio. Es uno de los signos de que la ética está adquiriendo un valor incondicional y que puede diferenciarse de los distintos sistemas o cosmovisiones de referencia. Por eso la persona es el punto neurálgico del encuentro.

El siguiente rasgo de esta ética del encuentro es un principio muy genérico pero importante porque supone un horizonte y referencia: «haz el bien y rechaza el mal». ¿En qué consiste este principio? Es muy discutible según las distintas tradiciones. Sin embargo, este principio implica que la humanidad está sintiendo la necesidad de establecer, a partir de la conciencia humana, qué valores o contravalores posibilitan su humanización o su destrucción. Afirmar la conciencia con capacidad de distinguir el bien del mal, aunque sea de una manera relativa y condicionada, y que los seres humanos podamos avanzar, consensuar y caminar hacia esos puntos neurálgicos, es un gran proceso de experiencia ética.

Por ejemplo, los diez mandamientos formulados por el pueblo de Israel en la Alianza del Sinaí tiene sus referentes explícitos en siglos anteriores, en el conocido código de Hammurabi. La humanidad no trata este tema como códigos preestablecidos de una vez por todas sino como procesos de conciencia y como procesos culturales.

Esto puede dar impresión de relativismo, es decir, no saber qué es lo bueno y qué es lo malo en un determinado contexto. Sin embargo, no es necesariamente un proceso de relativismo sino un proceso de discernimiento. Se trata de discernir en qué puntos podemos estar de

acuerdo y en qué puntos no. Esto mismo posibilita afirmar la confianza básica en la conciencia ética de las personas y de las distintas culturas.

El quinto rasgo de la ética es el carácter de incondicionalidad. Se entiende por incondicionalidad todo lo que la conciencia experimenta como deber. Un deber que no depende de los gustos ni de los beneficios que nos reporta. La incondicionalidad puede ser vivida de una manera muy formal, como mera obligatoriedad. En este caso siempre termina volviéndose contra la persona. Pero el deber puede tener otro sentido, en el que la responsabilidad ha alcanzado un nivel de libertad interior en el que ya no depende de gustos ni intereses. Se produce una correlación entre la percepción del valor incondicional de la persona humana y la percepción de la experiencia de incondicionalidad que supone siempre la ética.

Como último rasgo de la ética se señala un proceso de universalización. Al comienzo la ética implica códigos muy circunscritos a sociedades. Una conquista de la humanidad es que la ética puede adquirir principios universales. Aunque estamos en sociedades donde cuesta mucho asumir la Declaración Universal de los Derechos Humanos, esta declaración es una de las referencias básicas de este proceso de universalización de la ética.

2. La ética como sabiduría existencial

La ética no es un saber, ni siquiera tiene como referencia fundamental el comportamiento, socialmente aceptado o no. La ética nace radicalmente de la conciencia personal. En consecuencia, la conciencia ética depende del proceso de humanización que viva la persona. Por eso, es importante distinguir niveles de experiencia ética. Se mencionan tres niveles pero, lógicamente, hay muchos más.

La ética normativa

Este nivel de experiencia ética implica el aprendizaje de códigos de lo que está bien y de lo que está mal, asimilarlos, internalizarlos y obrar en consecuencia. La función de esta ética valiosa es establecer un orden para la convivencia y para las personas, que necesitan criterios claros de comportamiento.

La racionalidad abstracta

Este nivel de experiencia obra con grandes imperativos. Se trata de abrir horizontes a través de la racionalidad para establecer cómo hay que cambiar las situaciones y cómo caminar hacia un futuro distinto más adecuado a la dignidad de la persona y de las sociedades. El problema se produce cuando esta ética de racionalidad abstracta vive de imperativos formales. En este caso todo se subordina a principios y no se es capaz de compaginar estos principios con el discernimiento concreto de las situaciones.

Los griegos insistían en que la justicia siempre se tenía que compaginar con la prudencia. Intentar implantar idea-



les o principios sin tener en cuenta situaciones concretas, ni la viabilidad real para poder alcanzarlos se convierte en una ética de imperativos rígidos. Una ética que se rige por imperativos rígidos termina siendo lo contrario de la ética, es decir, la negación de la persona.

La sabiduría existencial

El tercer nivel de experiencia ética es lo que vamos a denominar sabiduría existencial. Este nivel depende fundamentalmente de procesos de experiencia personal de modo que se ha podido pasar de una ética normativa o de una ética de principios a una ética de sabiduría existencial. Vamos a ofrecer los rasgos más importantes de este nivel de experiencia ética.

·En **primer** lugar, situamos la actitud de autenticidad existencial. Es importante distinguir entre la autenticidad moral y la existencial. La autenticidad moral significa que uno obra según lo que piensa y que su vida es coherente con sus creencias, principios y convicciones. La autenticidad existencial es más honda y radical. La autenticidad existencial se sitúa antes que todos los códigos. Implica afirmar y elaborar cuestiones como «tengo derecho a ser yo mismo/a» o «debo tomar la vida en mis manos». Preguntarnos «¿qué voy a hacer con esa vida?» o «¿qué criterios prácticos voy a utilizar?» es un segundo momento. El primer momento, el de la autenticidad existencial, supone que la persona toma la vida en sus manos, que tiene conciencia de su responsabilidad de ser persona y desde ahí intenta ser fiel a sí mismo. La autenticidad existencial implica no huir de lo real, ser capaz de abordar conflictos, preferir verdad a seguridad... Esta actitud, previa a las decisiones concretas de conducta, supone un proceso de autonomía y de percepción de la ética a un nivel que no

se codifica pero que, sin embargo, son los dinamismos interiores desde donde la persona se abre a la realidad y toma conciencia de la dignidad de su propio ser.

·El **segundo** rasgo de la sabiduría existencial supone la capacidad de integrar racionalidad y compasión. La compasión entendida no de forma paternalista sino como la capacidad del corazón para poder percibir a las personas en su unicidad y sobre todo en el mundo de las relaciones interpersonales. Esta combinación de racionalidad y compasión implica asumir los valores incondicionales y vivirlos desde el corazón. El corazón tiene órganos que iluminan la realidad y el encuentro entre personas y abre horizontes de sentido y de esperanza que ninguna racionalidad formal puede captar. La sabiduría existencial no se centra únicamente en el comportamiento sino en cómo la persona se sitúa ante el otro.

·El **tercer** rasgo es más sutil pero muy importante. Son los sentimientos básicos de la existencia. Se puede ser coherente y mantener firmemente las convicciones y los imperativos éticos y no tener confianza en la vida ni en los otros. Sin confianza en la vida y en los otros, ¿qué ética se puede construir? Lo mismo ocurre con el aprendizaje del agradecimiento, es decir, la capacidad de poder percibir la realidad como un don, no como una propiedad que hay que dominar. Estos sentimientos básicos son el subsuelo que humaniza la ética, porque si la ética no es humanizada desde este subsuelo termina volviéndose contra el hombre.

·El **cuarto** rasgo supone la apertura a las cuestiones últimas de sentido. ¿Por qué la dignidad del hombre? ¿En qué se fundamenta? ¿Cuál es el sentido del sufrimiento?

miento, de la vida y de la muerte? ¿Por qué la ética exige imperativos incondicionales pero la realización práctica nunca puede ser ideal sino sólo posible? Puede ocurrir que una persona desde esta sabiduría existencial llegue a la conclusión de que el sentido de la vida es exactamente la ética. Por otro lado, desde un punto de vista creyente, se puede fundamentar el sentido de la ética en la palabra de Dios. Las dos posiciones son perfectamente legítimas porque las dos tienen el mismo punto de encuentro: la persona y la humanización.

La pregunta llegados a este punto es cómo llegar a este nivel de la ética como sabiduría existencial. Evidentemente, no se aprende en los libros, requiere un aprendizaje a través de procesos personales. Algunos requisitos para llegar a este nivel de experiencia ética.

·Es requisito necesario una madurez psicológica. Este proceso supone que la persona tiene capacidad de autonomía y que no la entiende como defensa de otro sino como fidelidad a sí mismo que precisamente posibilita la convivencia con el otro. Sin esta madurez psicológica difícilmente se producen procesos de niveles superiores de ética.

·Este nivel de experiencia ética supone también la capacidad de integrar la autonomía personal con la intersubjetividad, es decir, con la relación con los otros.

·Es necesario, además, desarrollar la capacidad de integrar lo concreto con lo universal. Por eso es tan importante en todo lo relacionado con la ética no reducirlo todo a códigos o a ideales sino prestar atención a la ética como proceso de humanización.

3. El encuentro como cuestión ética

Una observación de entrada, al hablar de encuentro partimos de una experiencia humana. Esta experiencia implica que somos capaces de encontrarnos más allá de las diferencias y que cuando se producen realidades que amenazan el encuentro, se puede encontrar un ámbito común. El encuentro se da a pesar de todo, o mejor, a través de todo. ¿Cuáles son los rasgos éticos que posibilitan este encuentro?

·En primer lugar, el respeto. El respeto no supone meramente lo que se suele formular como «tú tienes tu vida y yo la mía». A menudo, se utiliza la tolerancia como un principio individualista para que nadie se meta con nuestra vida. Eso puede ser un criterio social, de sentido común en algunos casos aunque no siempre. Es necesario distinguir el respeto o la tolerancia como principio ético, que supone la dignificación del otro, del respeto como criterio de convivencia social. Para llegar a un encuentro hace falta tratar al otro en su propia dignidad, piense como piense, sea su conducta como sea. Se puede estar de acuerdo o no pero la dignidad del otro es inviolable.

·El segundo rasgo que posibilita el encuentro es la confianza. Los seres humanos tenemos una enorme capacidad para desconfiar del otro porque lo percibimos como

distinto y como amenaza. La desconfianza es exactamente lo que mina todas las relaciones; en la vida familiar, en los grupos y cuando hay que llegar a decisiones consensuadas.

·En tercer lugar se sitúa la necesidad de encontrar una plataforma común que parte de la racionalidad. Desde un punto de vista científico, esto es muy claro. Los parámetros científicos son universales porque la ciencia opera sobre una racionalidad objetivable. Pero, cuando se trata de la convivencia humana y de la ética, la racionalidad funciona de un modo muy distinto. Es importante hacer esta distinción entre la racionalidad científica y la racionalidad que requiere esta plataforma común que busca lo universalmente humano y donde podemos encontrarnos a pesar de las diferencias ideológicas, culturales o religiosas. Si no, corremos el riesgo de caer en códigos cerrados que desembocan en muchas de las batallas que actualmente se dan en la sociedad ya que no se distingue dónde podemos encontrarnos y dónde no podemos encontrarnos. Por ejemplo, una educación que no tenga en cuenta esta plataforma común de la racionalidad puede desembocar en una lucha ideológica por el poder o en una lucha por el poder ideológico.

·El cuarto rasgo implica un empeño y una voluntad explícita de llegar a un consenso, máximo o mínimo. Esto requiere simultáneamente capacidad de colaboración. Se añade, además, un matiz que habitualmente se vincula con el mundo religioso pero que supone un sexto sentido para lo humano: que el otro sea considerado prójimo. Esto no supone que se le ame sino que sea considerado y vivido como prójimo, es decir, que no es simplemente «el otro», sino que es alguien conmigo, junto a mí. La cercanía que implica no es necesariamente afectiva pero sí necesita un aprendizaje de empatía. Una relación de consenso no se basa en la simpatía pero sí en la empatía, que significa la capacidad de situarse en el otro. Sin esa capacidad no hay posibilidad de encuentro con el otro. La tendencia habitual es la de construir «sistemas frente», sin embargo, es necesario romperlos para construir posibilidades de encuentro y esto supone actitudes.

Por ejemplo, no puede haber una auténtica democracia sólo con criterios formales de cómo se organiza la sociedad, un estado o unos partidos. A menudo, las democracias formales ocultan la falta de ética democrática. Una democracia no puede construirse sin un sentido ético. Supone respeto a la libertad y a la diferencia, supone la capacidad de vivir con reglas de consenso y también la capacidad de asumir el pluralismo como camino.

Otro ejemplo relacionado con esto tiene que ver con la conocida como asignatura para la ciudadanía. Es importante establecer una ética civil que no dependa de las ideologías para evitar caer en una lucha por el poder ideológico. Se puede tener una opinión distinta sobre este tema pero una sociedad que no se plantease seriamente una ética civil difícilmente podrá asumir la realidad plural en que vive.

Dicho de otra manera, se necesitan encuentros que humanicen y no puede haberlos si no hay una ética como presupuesto, pero a su vez, la ética nos lleva a encuentros donde podemos hablar de procesos de humanización.



En este punto cabe hacerse la siguiente pregunta ¿no es esto demasiado ingenuo o utópico? Lo es si todo se confía únicamente a la buena voluntad. En primer lugar, la buena voluntad no suele ser lo más evidente pero aunque se dé no basta con tener actitudes éticas. Necesitamos aprendizajes, destrezas, establecer reglas posibles para encuentros que humanicen. Lógicamente, ésta es una tarea que nunca termina porque los conflictos pertenecen esencialmente a esta tarea. Los conflictos pueden ser vividos como algo que hay que suprimir o como un camino de humanización. Elaborar los conflictos y hacerlo desde las claves éticas es un requisito fundamental para el futuro de la convivencia humana.

3.1. Dificultades para el encuentro como cuestión ética

Esta ética del encuentro presenta muchas dificultades que surgen de los distintos modos de vivir y entender la ética. Se mencionan a continuación algunas de estas dificultades.

- Una primera dificultad es constituir la ética en sistemas cerrados, es decir, o se está de acuerdo con determinado pensamiento ético o no, es todo o nada. Se presenta un pensamiento ético que, además, se justifica con valores absolutos y que, por lo tanto, o se asume o se está fuera de la ética. Esta dificultad no es propia exclusivamente del mundo religioso, creencias igualmente agnósticas se constituyen en códigos cerrados. Para que la ética pueda ser punto de encuentro es necesario que pase de ser un código cerrado a ser proceso y experiencia de humanización.
- Otra dificultad sería se produce cuando las causas se sitúan por encima de las personas. Se sacraliza un determinado proyecto político, ideológico o religioso que se sitúa por encima de las personas. Esto implica una dificultad grave para cualquier encuentro.
- Cuando las ideologías religiosas no asumen el pluralis-

mo social ni los pluralismos de otras religiones supone otro obstáculo para la ética del encuentro. En este punto se plantea una cuestión de fondo, ¿puede tener el error los mismos derechos que la verdad? La respuesta que se ha ofrecido, desde un punto de vista religioso, es que el error no tiene los mismos derechos que la verdad y puesto que la verdad ya está dada en la Iglesia quienes quedan fuera no pueden tener los mismos derechos. Sin embargo, ni la verdad ni el error tienen derechos, sólo la persona es sujeto de derechos. Esto cambia radicalmente el panorama y eso es exactamente lo que posibilita una ética del encuentro.

·Por último, cuando no hay ética, la ética está sustituida por el individualismo feroz o cuando la ética es confundida con el mínimo de los mínimos con afirmaciones del tipo «puedo hacer lo que me parezca con tal de no hacer daño a nadie»; con esos principios es imposible construir una humanización.

3.2. Frutos de la ética del encuentro

Construir poco a poco una ética que posibilita el encuentro puede generar consecuencias esperanzadoras. Mencionaremos algunas de las más significativas.

- Mientras se desarrolla este camino de encuentro ya se está dando un proceso de humanización.** Y cuando este camino de encuentro no es sólo de intereses sino que está iluminado por criterios éticos entonces la humanización tiene verdaderas raíces. Los intereses van y vienen, el sentido ético tiene dificultades pero permanece. En la práctica hay que tener en cuenta esos intereses. A eso le llamamos aprendizajes, destrezas, combinar justicia y prudencia, etc.
- Lograr espacios comunes de paz y de convivencia.** Si estos espacios comunes son valores que promocionan al



ser humano hay mucho más que una pacificación social, hay una auténtica educación social.

·**La conquista de una ética civil consensuada.** Para ello es importante discernir dónde podemos estar de acuerdo y dónde no podemos estar de acuerdo. Y, por supuesto, es igualmente importante distinguir el derecho de los criterios éticos. En temas que pueden dar lugar a la confrontación hay que distinguir entre el consenso jurídico en una determinada sociedad plural y los problemas de discernimiento ético. Se trata de establecer unas normas de convivencia sin confundir lo legal con lo ético, es decir, que algo no sea ilegal no implica necesariamente que sea ético.

·**Lograr una plataforma para el diálogo interreligioso.** Las religiones tienen el peligro de que, al percibir la experiencia religiosa como verdad absoluta, se construya esa verdad como un sistema sin fracturas. Este hecho impide el diálogo interreligioso. Es necesario construir una plataforma común para este diálogo, un pacto humanista cuyo primer punto de referencia sea la Declaración Universal de los Derechos Humanos. Si no, se corre el peligro de que las religiones tiendan a los fundamentalismos. Hay un principio esencial para esta plataforma: la fe es para las personas, las personas no son para la fe.

·Actualmente nuestra conciencia de la humanidad ya es planetaria y esto nos obliga poco a poco a **construir una ética mundial**. Esto se aplica a la ONU, a los tribunales de la ONU y a los diálogos interreligiosos e interculturales. Evidentemente hay que comenzar siempre por poco pero sería uno de los frutos más importantes.

·**Desarrollar una ética de la ecología.** Allí donde están en juego los principios de convivencia que se liberan de sistemas es donde es necesaria esta ética para el encuentro.

4. Cuestiones pendientes

De todos modos, algunas cuestiones pendientes quedan para la reflexión.

·Una primera cuestión, ¿qué necesita una persona para vivir una experiencia de este tipo de ética? Las grandes dificultades para que los humanos se muevan se dan en el ámbito de las motivaciones, ¿qué nos motiva? ¿La moda? ¿La conciencia individual? ¿La sabiduría existencial? ¿La fe? Sin motivaciones no hay conducta y al final los grandes problemas siempre se dan en este terreno.

·Otra cuestión pendiente muy importante es ¿cómo integrar la identidad personal, social, cultural, religiosa con lo común humano? Es una gran conquista el que se pueda diferenciar que encontrarnos en lo común no debe diluir la identidad. La ilustración desde el siglo XVIII ha usado consciente o inconscientemente como criterio la necesidad de liberarse de lo particular y de la identidad porque suponen un obstáculo para llegar a lo universal y a la humanización. Sin embargo, se puede tener encuentro en lo común y seguir caminando hacia procesos cada vez mayores de humanización desde la identidad.

·¿Dónde se fundamenta en última instancia la ética? Es otro tema pendiente. Hay pensadores que afirman que las grandes religiones no son más que estadios previos a esta ética universal y que deben ser superadas para encontrarnos en lo común. Las religiones son valoradas por su contribución a los procesos éticos de la humanidad pero sostienen que no es necesario ningún sentido último religioso para fundamentar la ética. Ofrecemos algunas matizaciones a este pensamiento. En primer lugar, una ética humanista no necesita una explicitación religiosa. La racionalidad y el encuentro interpersonal, cuando la ética es sabiduría existencial, no necesita fundamentación religiosa. Segundo, quien vive la ética desde una fundamentación religiosa tiene un modo peculiar de vivir la ética. Ni mejor ni peor, el mundo de las motivaciones es distinto y este mundo no es secundario. No es necesario encontrar una fundamentación metafísica o religiosa para la ética porque la fundamentación de sentido no es algo que se deduce de ningún pensamiento filosófico ni religioso.